

I grekoa

Oinarria latindarra duen euskal alfabetoko hogeita seigarren letra da *igrekoa*. Elhuyar hiztegiaren hogei hitz hasten dira *igrekooz*. Horietaz gain, hiruzpalau halako hitzetan *igrekoa* agertzen da. *I* grekoa euskal letra da, baina *background* oparokoa. Gurean estetikatik etikara igaro dena.

Javier Ederrek 2010eko azaroaren 12ko bere zutabearen adierazi zuenez, *igrekoa* deitu zioten, baina baita *inafarra* edo *iheiddegertarra* ere, esentziaren xerka Heideggerrek *igrek* arkaiko batez idazten baitu *izan* aditza, *seyn*, oin-ohar batean, Nafarroako filosofo gorenak

Reyno idatzi ohi duten bezala. Zenbat gauza, zenbat giltza gorde dezakeen letra soil batek. *Reyno* hitzak erresumaren eskubideak zintzako eta ezdeus bilakatzen zituen. Sotiltasun handiko kontua. Nik atzo, *whatsapp* batean, aspaldiko lagun baten alaba jaioberriaren izenari ez nion jarri —ez bainuen gogoan— zegokion *igrek*oa: Leyre. Berehala desenkusatu nintzen

mindu ez zedin. Atzo ere, egunkari batean irakurri ditut Nieves eta Goikoetxea andreen arteko mezu elektronikoak. Sailburuak —Olatzagutian bizi den tolosarrak— behin eta berriz Idoya deitzen dio bere menpekoari, horrek bere izena, behin eta berriz, euskal grafian idatzi arren.



Jira
Angel Erro

Etorkizuna

A nostalgikoa da sortzetik: jaiorako sabelera itzuli nahi izan zuen. B, berriz, aurrera begira bizi da, etorkizunak beti zerbaitek hobea ekar dezakeela sinetsita. Zazpiki jaioren.

A eta B lagunak dira, beti xextran ibiltzen diren arren. Adibidez, A-k parrandarako La Polla jartzen duten txosnak nahi izaten ditu. B-k, oster, DJ intelektualean joaldi *cool*-ak. A-k ilea kokotean luze darama oraindik. B dagoneko kokoteraino dago pasatzko betaurreko hipsterrekin.

Hala ere, une batez B A-ri arrazoia ematekotan egon da. Izan ere, iraganaren alde egiteko Ukrainari heldu dio A-k, eta iritzi dema

geostrategiko hori Gerra Hotzaren pizte eskasa baino ez dela. Gutxienez, lehen bi jendarte antolaketa zeudela lehiar; orain, berriz, proposamen bakarrean txarraren eta okerragoaren artean bereizi eta hautatu ezina besterik ez. B-ri ez zaio kontrako argudiorik bururatu. A Euskal Herrira etorri da hurrena, eta esan du, indarkariaren erabilerari buruzko kontsiderazio etikoetan sartu gabe, lehen bazela handien bortizkeria indarrez zilegi bilakatuari aurre egiteko itxaropena. Orain, berriz, etsitze irudiak baino ez.

Orduantxe piztu da B: armagabetzea dela etorkizunerako arma erantzun dio A-ri. Egiaz ez daki esaldi horrek mami handirik duen. Baina etorkizuneari sinetsi nahi du, nahi du, nahi du.



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria:

Martxo Ugalde kultur parkea.

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Jose Anjel Aldai

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: Bidera

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

071284059

Egoitza nagusia:

Martxo Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoak:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 22/02/2014

Exemplaire: 3.309

Editore: Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxo Ugalde

Comission paritaire:

071284059

Delegation Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoak:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoak:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoak:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoak:

nafrarrea@berria.info.

Gorroto-diskurtsoa eta homosexualitatea

Jon M. Landa

Zuzenbide penaleko irakaslea, EHU

Duela gutxi Fernando Sebastianek, Iruñeko artzapezpikua izandakoak eta kardenala izendatu berriak, homosexualitatea eta gaitxo egotea parekatu zituen, hura sexualitatearen adierazteko modu akastuna omen den neurrian, medikuntza-tratamendua beharko lukeela aldarrikatu. Berehalaxe berak esandakoa komunikabideetara hedatu zen, eta horren aurka beste hainbeste pertsonak zein taldek kontrako kritika agertu zuten. Handik bi astebetara Malagako Fiskaltzak ikerketarako eginbideak ireki zituen, esandakoak Zigor Kodearen 510 artikuluan jasotzen den delitua —diskriminazioarako probokazioa— osatzen duenentz argitzeko asmoz.

Diskriminazioak historikoki talde osoak modu estrukturalan eskubide-berdintasunetik at utztearrikeriaren zerkusia dauka. Talde osoak —besteak beste, beltzak, zuriak ez direnak, ezgaiak, emakumeak, homosexualak, talde etnikoak nagusiarenak ez direnak, gutxiengo ideologikoak, gizarte-jatorri ez-zilegiak...— ez dira berdintzatatuak izan, beraie dagozkien eskubideak ukatuz. Diskriminazioa muturrera eramanez, eta hura gaindituz, talde horien aurkako sarraskiak eta oso delitu zein giza-eskubideen urraketak larriak ere gertatu izan dira: gogora dezagun ezohiko Hego Afrikaren *apartheid* bera, edota nazien holokautoa; gogora ditzagun ohi-ko eta eguneroko emakumeen aur-

kako etxe-indarkeria dela-eta, tantaka batzuetan eta uholdeka beste-etan, eraildako guztiak.

Diskriminazioa ez da fenomeno indibiduala, pertsona bakar batekin harremanetan jarri beharrek, pertsona partikular horren aurkako kaltea hori bukatuko balitz bezala. Diskriminazioa fenomeno supraindividuala dugu, kolektiboa, kultur zein gizarte-sustrai sakonekin. Horregatik, antza denez, gertaera bakanez ez dute eragin indibidual hutsik. Aldarrikapen homofoboak edota ekintza diskriminatzaile bakar batek, pertsona jakin bat ez ezik, talde osoa ere egoera baztertzailan hondoratu du, egoera historiko eta estrukturala injustizian egonkortuz. Hori dela eta, diskriminazioaren aurkako politikak sortu eta bultzatzen hasi ziren batez ere XX. mendetik hona, gizarte-aldaketa oso baten bila. Hortaz, politika diskriminatzaileok esparru guztietan zabaldu behar dira: lan-baldintzetan, gizarte-politikan, hezkuntza-mailan eta baita zuzenbidean ere. Bai eta zuzenbide penalean ere?

Estatu demokratikoetan zuzenbide penalak zenbait printzipio edo irizpide artean *ultima ratio* printzipioa dugu. *Ultima ratio* edo azkeneko helpide esamoldearekin, zera adierazi nahi da: ez dago zuzenbide penala erabiltzerik hain larria ez den ondorioirik ekartzen duen beste biderik balego. Ez deza horien aurkako sarraskiak eta oso delitu zein giza-eskubideen urraketak larriak ere gertatu izan dira: gogora dezagun ezohiko Hego Afrikaren *apartheid* bera, edota nazien holokautoa; gogora ditzagun ohi-ko eta eguneroko emakumeen aur-

politikaz lortu ahal dena ez deza gun zuzenbide penalaren bitartez lortzen ahalegindu. Eta hauxe ere, hain justu, bada eskuartearen dugun kasuan, nire aburuz, kinka larrian dugun erronka. Nork eta kardenal batek homosexualitatea eta gaixotasuna parekatzen dituenean, zuzenbide penalera jo behar al dugu?

Erantzungo dut adibide baten bitartez. 1977-1978an, Estatu Batuetako Alderdi Nazia ahalagindu zen manifestazio bat aurrera eramaten, non eta Skokie izeneko auzo batean. Illinois estatuan dago Skokie, eta bertan sei biztanletik bat holokautoa gainditzea lortu zuen biktima zen. Estatu Batuetako neozaziek nahi zuten beraien esbastika, uniforme eta sinbolo naziek Skokieko kaleetatik abiatu, Europako sarraskitik alde egin zuten milaka lagunaren artean. Autoritateek manifestazioa debekatu egin zuten hasiera batean, eta borroka judiziala hasi zen, harik eta azkeneko Auzitegi Gorenak neozazie arrazoia eman eta, adierazpen-askatasunaren oinarriturik, manifestazioa aurrera eramateko baimena eman zien arte. Nabarmenezkoa da nazien aldeko borroka judizialean eskubide zibilen aldeko erakundeak aurrerakoi batek ere (ACLU izenekoak) jardun zuela, neozazien ideologiaren guztiz aurkakoa zena baina, aldi berean, sinesten zuena horiek eta horien ideia ankerrak adierazteko eskubidea izan behar zutelako. Borroka judizialak iraun zuten bitartean, ordea, eztabaida publikoa areagotu zen, eta neozazien aurkako mugimendu zibila bizkortu, sendotu egin zen. Azkenean, baimena eduki arren, neozaziek manifestazioa bertan behera utzi zuten. Aitzitik, manifestazioa-

ren aurka zeudenak iritzi publikoa irabazita, Skokie bertan holokautoa gogoratzeko museo bat eraikitzea ere heldu ziren. Labur esanda: zuzenbide penalaren borroka galdutako zen, baina gizartearen borroka, irabazi!

Estatu Batuetan —zenbait kasutan— sinetsita daude adierazpen askatasuna defendatzeko modurik onena askatasunaren bitartez dela. Zuzenbide penalari ekin beharrenean, eztabaida publiko askeak, gizarte zibil kontzientzia eta aktiboak demokratizazioaren aurkako ideologia suntsitu beharko luke. Horra hori nire aburuz homosexualitatearen aurkako gorroto-diskurtsoa edota emakumeen ideologia matxista edota terrorismoaren apologia kasuetan ere ezarri beharrekota estrategi. Okerrak diren ideologiak, demokraziaren, hobe hitzaren bitartez borrokatuz gero, eta ez zuzenbide penalaren bitartez. Azken horri ekinez gero, ez ote gara martir bilakatzeko ari indar ofizialez isilarazten ditugunak? Ez al dago arriskua, indar koaktiboa lagun, eztabaida publikoa boterearen alde manipulatuko da? Ez al dugu zabalduko mamua zer edo zer esan ezin bada, debekatu dagoelako, klandestinoan den horretan egia apur bat egon daitekeela? Agian esaten dudana ez da oso «politikoki zuzena» izango, baina Estatuaren esku errepresibioan dena fio izatea benetan irtenbidea al da? Nik, ordea, oraindik ere gure gizarte zibilean sinesten dut, eta, nire uste apalean, hura indartzearen bitartez gorroto-diskurtsoa gainditu litekeelakoan nago. Gorroto-diskurtsoa gainditu ez ezik, baita indargabetu eta akabatu ere: Fernando Sebastianek botatakoa barne.